



**BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAK** zerbitzuaren erabiltzaile guztiei gogorarazten die tasen likidazioei aurre egiteko edozein zailtasun izanez gero, tasak epetan ordaintzeko eska dezaketela, euren ahalmen ekonomikoaren arabera.

**UR PARTZUERGOAK** ez du hornidura etengo arrazoi ekonomikoengatik ordainketak geroratzeko eskatu duten etxeetan.

Era berean, COVID-19 gaixotasunaren pandemiari aurre egiteko dekretuz ezarritako alarma-egoerak gure erabiltzaile askori eragin dien kalte ekonomikoa eta bizi dugun egoera berezia kontuan hartuta, herritarrei jakinarazten diegu honako neurri hauek hartu ditugula:

## Fakturazio eta diru-bilketa prozeduretan egindako aldaketak, agintariek COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien eraginaren ondorioz

### Borondatezko aldian ordaintzeko epea luzatzea eta ordainketak geroratzea

- Partzuergoak maiatzaren 31ra arte igortzen dituen fakturak **borondatez ordaintzeko epea** 90 egunekoa izango da; beraz, nabarmen luzatuko da ohiko epea (30 egunekoa dena).
- Fakturen ordainketa errazteko asmoz, fakturak **epetan ordaintzeko edo geroratzeko** aukera emango da, atzerapen-**interesik edo errekar gurik** aplikatu **gabe**.
- Era berean, hilabete atzeratuko da alarma-egoera dekretuz ezarri aurretik emandako geroratze-kuoten epemuga

### Prozedura jakin batzuen izapidetzea etetea

- Fakturak ez ordaintzearen ondoriozko **hornidura-eternaldiak** ekainaren 1era arte eten dira.
- **Ez da premiamendu-probidentziarik jakinaraziko** eta, ondorioz, ez da premiamendu-errekargurik likidatuko ekainaren 1era arte.
- **Erabilera klandestinoen ondoriozko ofiziozko alta**-prozesuetatik eratorritako espedienteak ekainaren 1era arte eten dira.
- Herritarrek informazio-errekerimenduei erantzuteko edo administrazioaren aurkako **errekurtsoak eta erreklamazioak** aurkezteko epeak ekainaren 1era arte eten dira
- 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da interesdunek Ordenantza Fiskalaren 44bis artikuluan araututako hobariaren onuradun izateko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko epea; hala, 2020ko bigarren hiruhilekoari dagozkion likidazioak ofizioz egingo dira, 2019ko apirilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra bitartean egin ziren baldintza berberetan.



El **CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA** recuerda a todos los usuarios del servicio que ante cualquier dificultad para atender las liquidaciones de las tasas, pueden solicitar fraccionamientos de pago acordes a su capacidad económica.

El **CONSORCIO DE AGUAS** no realiza interrupciones de suministro en ningún domicilio que haya solicitado dichos aplazamientos de pago por motivos económicos.

A su vez, dadas las especiales circunstancias y el impacto económico negativo que el estado de alarma decretado para hacer frente a la pandemia del Covid-19 ha podido ocasionar en muchos de nuestros usuarios, se pone en conocimiento de la ciudadanía que se han adoptado las siguientes medidas:

## Modificaciones en el procedimiento de facturación y recaudación como consecuencia de la incidencia de las medidas adoptadas por las autoridades para hacer frente al Covid-19

### Ampliación del plazo de pago en periodo voluntario y aplazamientos de pago

- El **plazo de pago voluntario** de las facturas que sean emitidas por este Consorcio hasta el 31 de mayo, se establece en **90 días**, de forma que se otorga un periodo sensiblemente superior al habitual de 30 días.
- En orden a facilitar el pago de las facturas, se van a conceder **fraccionamientos y aplazamientos de pago** de las mismas, **sin** aplicación de **recargos ni intereses** de demora.
- A su vez, se retrasa un mes el vencimiento de las cuotas de los aplazamientos concedidos con anterioridad al Decreto de estado de alarma.

### Suspensión de la tramitación de determinados procedimientos

- Las **interrupciones de suministro** por impago de facturas se han suspendido hasta el 1 de junio.
- **No se notificarán providencias de apremio** y en consecuencia no se van a liquidar recargos de apremio hasta el 1 de junio.
- Los expedientes derivados de procesos de **alta de oficio por usos clandestinos** se han suspendido hasta el 1 de junio.
- El cómputo de plazos para que el ciudadano dé respuesta a requerimientos de información o realice la interposición de **recursos y reclamaciones administrativas** se ha suspendido hasta el 1 de junio.
- Se prorroga hasta el 1 de junio de 2020 el plazo para que los interesados aporten la documentación necesaria para resultar beneficiarios de la bonificación regulada en el artículo 44bis de la Ordenanza Fiscal; de forma que las liquidaciones correspondientes al segundo trimestre de 2020 se realizarán de oficio en las mismas condiciones en las que se efectuaron en el periodo comprendido entre el 1 de abril de 2019 y el 31 de marzo de 2020.